

KRISTAU ESKOLAK ETA IZEAK GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEETAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK MURRIZTEKO PROPOSAMENA EGIN DUTE GAURKO NEGOZIAZIO MAHAIAN

Kristau Eskola eta IZEA patronalek Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako langileen eskubideak murrizteko proposamena aurkeztu dute gaurko hitzarmenaren negoziazio mahaian.

Sindikatuok hilabeteak daramatzagu patronalei maiatzaren 30ean ematen dizkiegun plataformen erantzunaren zain. Zentzuzko proposamenak ekarri beharrean, Kristau Eskolak eta IZEAK legeak edo sektoreko hitzarmenak aitortutako eskubideak murriztu nahi dituzte, helburu hauek baitituzte:

- Ekoizpenaren inguruko aldi baterako kontratuak 12 hilabetera arte luzatzea, legeak esaten duenean mugagabe izan behar dutela lehen egunetik.
- Haur Hezkuntzako lehen zikloan eta lanbide-heziketan tutoretza ez ordaintzea, nahiz eta hitzarmenak eta auzitegiek horretara behartzen dituzten.
- Lanbide-heziketako ikastetxeetan 22 orduko eskola-lanaldia ez errespetatzea, hitzarmenean 25 ordura arteko ohiko eskola-lanaldia adostuz, inolako konpentsaziorik gabe.
- Gaixotasunagatiko bajaren edo jaiotzagatiko baimenaren kasuan, Gabonetako eta Aste Santuko opor-egunak berreskuratzeko aukera kentzea.
- Lanpostua galtzen duten langile finkoen birkokapena mugatzea.
- Adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketarako edo eszedentziarako eskubidea mugatzea.

Lanaldiari dagokionez, ez dute inongo kategoriatan murrizketarik proposatzen, eta soldatari dagokionez, 2021erako izoztea eskaintzen dute, gainera, 2022tik aurrera soldata igoerak eta jasotzen duten finantzaketa publikoa lotu nahi dute.

STEILASek uko egin dio negoziatioari ezetza emateko asmoz egindako proposamen honi. Sektoreko azken lan-gatazkan ez omen zuten ezer ikasi. Berriz ere, Kristau Eskolak eta AICE patronalak beren ikastetxeetako langileen eskubideak murrizten saiatzen dira, 2013an estatuko hitzarmena alde bakarrez aplikatuz egin zuten bezala.

Gehiengoa duen sindikatuak eskatuta, patronalek onartu egin dute negoziazio mahaira proposamen berri bat ekartzea. Bilera urtarrilaren 31n izango da. STEILASek Kristau Eskolari eta IZEARI eskatu die eskubideen murrizketarik gabeko eta negoziazioa benetan aktibatzea ahalbidetuko duen plataforma bat ekartzeko.

STEILASek hemendik aurrera eman beharreko urratsak baloratuko ditu, mobilizazioak aktibatzea baztertu gabe. Antza denez, Gizarte Ekimeneko Zentroetako Patronalek ulertzen duten hizkuntza bakarra da.

KRISTAU ESKOLA Y AICE HACEN EN LA MESA DE NEGOCIACION DE HOY UNA PROPUESTA QUE RECORTA LOS DERECHOS DEL PERSONAL DE LOS CENTROS DE INICIATIVA SOCIAL

Las patronales Kristau Eskola y AICE han presentado hoy en la mesa de negociación del convenio una propuesta que pretende recortar los derechos del personal de los Centros de Iniciativa Social.

Los sindicatos llevamos meses esperando una respuesta a las patraformas que entregamos a las patronales el 30 de mayo. Lejos de traer propuestas razonables, Kristau Eskola y AICE quieren recortar derechos reconocidos por la ley o el convenio del sector, ya que pretenden:

- Ampliar los contratos temporales por circunstancias de la producción hasta los 12 meses cuando la ley dice que deben ser indefinidos desde el primer día.
- No pagar la tutoría en el primer ciclo de infantil y en la formación profesional a pesar de que el convenio y los tribunales les obligan a ello.
- No respetar la jornada lectiva de 22 horas en los centros de formación profesional acordando en convenio una jornada lectiva ordinaria de hasta 25 horas sin ninguna compensación.
- Eliminar la posibilidad de recuperar los días de vacaciones de Navidad y Semana Santa en el caso de baja por enfermedad o permiso por nacimiento.
- Limitar la recolocación del personal fijo que pierde su puesto de trabajo.
- Limitar el derecho a reducción de jornada o excedencia por cuidado de menor.

En cuanto a jornada no proponen ninguna reducción en ninguna categoría y en lo referente al salario ofrecen congelación para 2021 y a partir de 2022 pretender ligar las subidas salariales y la financiación pública que reciben.

STEILAS ha mostrado su rechazo a esta propuesta que parece hecha con el fin de dar un portazo a la negociación. Es como si no hubieran aprendido nada en el último conflicto laboral del sector. Una vez más las Patronales Kristau Eskola y AICE intentan recorta los derechos del personal de sus centros, tal y como hicieron en 2013 aplicando unilateralmente el convenio estatal.

A propuesta del sindicato mayoritario las Patronales han aceptado traer una nueva propuesta a la mesa de negociación. La reunión será el 31 de enero. STEILAS ha pedido a Kristau Eskola y AICE que traigan una plataforma que no incluya recortes de derechos y que permita activar de verdad la negociación.

STEILAS valorará los pasos a dar a partir de ahora, sin descartar la activación de las movilizaciones. Al parecer, el único lenguaje que entienden las Patronales de los Centros de Iniciativa Social.